



EBAZPENA, 2011KO APIRILAREN 15KOA, HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILEKO LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ 2011-2012 IKASTURTERAKO EBATZI BAITIRA, ALDE BATETIK, ZERBITZU-EGINKIZUNEN DEIALDIA, ETA BESTETIK IRAKASTORDUEN 1/3KO MURRIZKETAK, OHIKO IRAKASLANAK BETETZEKO ZAILTASUN HANDIAK ERAGITEN DITUZTEN GAITXOTASUN LARRIAK DITUZTEN UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IRAKASLEEN KIDEGOETAKO FUNTZIONARIOENTZAT.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, azaroaren 7ko 16/1997 Legeak aldatuak, bere 54. artikuluan arautu du zerbitzu-eginkizuna, eta lanpostuak betetzeko aparteko era bat bezala taxutu.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileriaren Kudeaketa Zuzendariak 2011ko otsailaren 28an emandako Ebazpenak honako hauek arautu zituen, 2011/2012 ikasturterako: unibertsitateaz kanpoko irakasleen kidegoetako karrerako funtzionario eta bitarteko funtzionarioek destinatuta dauden lanpostuez bestelakoetan beteko dituzten zerbitzu-eginkizunak, eta osasun arazo larriak dituzten karrerako funtzionarioen eskola-orduen 1/3ko murrizketa.

Aipatu Ebazpenaren hirugarren artikulua ezarri duenaren arabera, zerbitzu-eginkizunak emango dira zerbitzuari begiratuta (irakaskuntzako arrazoiengatik soilik), edo egoera pertsonal bereziei begiratuta (toki-korporazioetan hautatutako kargu ordaindu gabeak betetzen dituztenean, edo osasun-arrazoiak direla eta, gaitxotasun larririk bada, zerbitzu-eginkizuna bidezkotzen edo ezinbestekotzen duena). Salbuespen gisa, senide baten osasun larriaren ondoriozko zerbitzu eginkizuna eman ahal izango da. Era berean, jardunaldiaren murrizketa eman ahal izango da, irakaskuntza eragotzen duen osasun arazo larriren bat baldin badago.

Goian aipatutako Ebazpenaren bosgarren artikulua esandakoari jarraiki, Langileriaren Kudeaketa zuzendariak ebatziko ditu zerbitzu-eginkizunak, Balioespeneko Batzordeak proposatuta, batzorde hori deialdiaren bosgarren artikuluan adierazitako kideek osatzen dutela.

Horiek horrela, eta Balioespeneko Batzordeak egindako proposamena ikusirik, honako hau



EBATZI DUT

Lehena.- <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net> web orrialdean eta Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetako iragarki oholetan argitaratzea Ebazpen honen Eranskina. Eranskin horretan ondorengoak ageri dira: 2011/2012 ikasturterako eman diren eta ukatu diren zerbitzu-eginkizunak, eta eskola-orduen 1/3ko murrizketak.

Bigarrena.- Emandako zerbitzu-eginkizunak, oro har, hutsik dauden lanpostuak betetzeko ematen dira, eta interesdunek ikasturte hasierako esleipenera joan behar dute, dagokien txandan, plaza aukeratzera.

Hirugarrena.- Beste administrazio publikoen mendeko funtzionarioek eskatutako zerbitzu-eginkizunak ez dira ebazpen honen bidez erabaki, kasu horiek deialdi honen eremu subjektibotik kanpo geratzen baitira.

ERREKURTSOAK

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatuak, bere 114. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetako iragarki-oholetan argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko apirilaren 15an.

Juan Manuel Aramendi Arteaga
Langileriaren Kudeaketa zuzendaria

